

## **ETXEKO GARBIKETA ETA ZERBITZUAK**

### **NEGOZIOAREN DEFINIZIOA**

Garbiketa-zerbitzuak eta bestelako zerbitzuak etxerako.

### **MERKATU-DATUAK**

Bi produktu-tipologia daude sektore honetan: garbiketa-zerbitzuak enpresa, industria, eraikin... eta partikularrentzat, eta etxerako zerbitzuak, etxea garbitzeko produktua ere sartzen delarik hauetan. Lehenengoetan, industri garbiketako jardueretan, 1.209 establezimendu zeuden EAEn 2001. urtean, eta honek esan nahi du 1995ean baino %29 gehiago. Bigarren goen artean, etxerako gizarte-zerbitzuak, 78 establezimendu zeuden, eta honek esan nahi du ia bikoiztu egin direla 1995 eta 2001 urteen artean.

Garbiketa-enpresek era guztietako eraikinak barrutik garbitzen dituzte: bulegoak, fabrikak, dendak, erakunde publikoen eraikinak eta bestelako enpresa eta profesionalen establezimenduak, baita etxebizitza-blokeak eta auzo-elkarteak ere. Hau da, gehiago dihardute industri garbiketaren partikularren merkaturan baino. Hala ere, zerbitzu hau banakoei zuzentzeko aukera gehitzen ari da. Eraikinen mantentze-zerbitzuetako enpresa handiek, gainera, partikularrei garbiketa-zerbitzuak, haurrak eta adinekoak zaintzeko zerbitzuak, etab. ematen dizkiete. Bestalde, etxebizitza-kopurua gehitzen ari da bizi-baldintzak aldatzen ari direlako, eta EAEn bakarrik 683.286 familia zeuden 1996an. Gainera, emakumea lan-merkatuan erabat txertatzea eta ekonomiaren egungo egoerak, pixkanaka enplegu betera hurbiltzen ari diren okupazio-tasekin, etxeko garbiketa-zerbitzuen eskaria bultzatu dute.

Etxe-zerbitzuei dagokienez, DBK aholkularitza-enpresak dioenez, etxeko laguntza-zerbitzuen sektoreak 45.000 milioi pezeta inguruko fakturazioa izan zuen 1999an, eta hazteko joera du laurogeita hamarreko urteen bigarren erdialdean izandako garapenetik. Hala ere, bilakaera horren hastapenetan dago oraindik Espainia, Ipar Europako herrialdeetan lortutako mailatik urrun eta Herri Administrazioaren jardunari oso lotuta. Testuinguru honetan, sektoreak sortutako negozio-kopuru osoa 43.000 milioi pezetakoa izan zen 1999. urtean, %19 gehiago aurreko ekitaldian baino. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuek sarreren %93 berenganatu zituzten, eta gainerako %1 —3.000 milioi pezeta inguru— telelaguntzako zerbitzuek hartu zituzten. Epe ertain eta luzeko bilakaera-aurreikuspenak baikorrak dira, hirugarren adinekoentzako zerbitzuen eta batez ere etxez etxeko laguntza-zerbitzuen negozioaren hazkundera eragingo duten zenbait faktore — jendea zahartzea, emakumea lan-merkatuan sartzea, errenta-maila igotzea— identifikatu baitira, ekimen pribatuaren parte-hartze handiagoa espero delarik.

Nahiz eta ez dagoen oztopo asko arlo honetan sartzeko, industri arloko garbiketa espezializatuagoaren kasua izan ezik, non beharrezkoa baita inbertsio handiagoa egitea makinetan, profesional independenteen kopurua oso handia da sektorean. Gainera, ez da ahaztu behar —batez ere etxeen eta auzo-elkarteen— garbiketaren dihardutenen lehia, eta ez daudela Gizarte Segurantzaren sartuta ere, ezta Jarduera Ekonomikoen Zerga ordaintzen ere.

## **ENPRESA-PLANA**

### **Marketin-plana**

#### □ *Zerbitzuak*

Enpresa-merkatuan lan eginez gero, zerbitzurik ohikoenak garbiketa orokorrak, garbiketa bereziak, beiratzatzeak, leuntzeak eta distira-emateak dira. Partikularren merkatuan etxearen garbiketa eta laguntza pertsonala sartzen dira (janariak prestatzea, haurrak eta adinekoak zaintzea, arropa lisatzea, etab.).

#### □ *Sustapena*

Orrialde horietan iragarkiak sartzea, finka-administratzaileekin harremanetan jartzea eta, partikularren kasuan, zuzeneko sustapena dira baliabiderik erabilienak honelako enpresentzat.

### **Plan Operatiboa**

#### □ *Lokala*

Leku banatuak behar dira bulegoa eta material-biltegia jartzeko. Hobe dira beheko plantak, autoa erraz uzteko aukerarekin.

#### □ *Eremua*

Bulego zentralak harrera-gela, administrazioa, zuzendaritza-gela eta bilera-gela izan behar ditu. 50 m<sup>2</sup>-tik gorako gelak komeni dira.

#### □ *Ekipamendua*

Garbiketa-zerbitzuak enpresei emanez gero ezinbestekoak dira leuntzeko makinak, distirarazteko makinak, jasogailuak, ur presioko makinak, buggyak eta trolleyak, besteak beste. Furgoneta bat izatea ere komeni da. Partikularrentzat lan egiteko, atal honetako inbertsioa gutxienezkoa da.

### **Giza baliabideen plana**

Garbiketa-enpresek Gizarte Segurantzako Erregimenean kontrata ditzakete langileak. Banako enpresaburu gisa hasiz gero, Etxeko Langileen Erregimen Berezia har daiteke, 115 euro inguruko kuota ordaintzea eskatzen duelarik, autonomo gisa ordaintzen dena baino kuota txikiagoa. Normalean garbigarriak saltzen dituzten enpresek prestakuntza-ikastaroak eskaintzen dizkiete langileei horiek ezagutu eta egoki erabil ditzaten.

### **Inbertsio-plana**

Hasierako inbertsioa 15.000 eta 42.000 euro artekoa izan daiteke, enpresen merkatura zuzenduz gero. Zerbitzuak partikularrentzat bakarrik baldin badira, ordea, inbertsioa gutxienekoa da. Dena den, negozioa abian jarri aurretik diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena egitea komeni da.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

### **Administrazio-izapideak**

**EAE:** Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>  
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

### **Enpresa bat sortzeko informazio osoa**

<http://www.creaciondempresas.com/>

### **Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak**

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

### **IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK**

#### **❑ *Seriotasuna eta konfiantza***

Hau da bezeroak gehien balioesten duena. Jokabide desleialaren susmorik txikiena aski izango da enpresaren edo etxe-langilearen zerbitzuak baztertzeko. Merkatu honek erreferentziakin funtzionatzen du. Pozik dagoen bezeroa izango da publizitaterik onena. Aitzitik, pozik ez dagoen batek “komunikazio-eragin” oso kaltegarria izango du enpresarentzat.

#### **❑ *Teknologia berriak sartzea***

Laster, domotikak (etxeetako erosotasun eta segurtasunerako aplikazioek) eta teknologia berriek etheen kontrola ahalbidetuko dute etxetresna elektrikoak kudeatuko dituzten sare adimendunak, etxebizitza lantokitik zaintzeko aukera ematen duten webcamak, segurtasun-sistema aurreratuak, etab. erabiliz. Ez dira bistatik galdu behar berrikuntza hauek, negozio-bide alternatiboak zabal ditzakete eta.

□ *Giza taldearen antolaketa eta kudeaketa*

Garrantzitsua da zerbitzuak programatzen eta ditugun langileen artean banatzen jakitea. Langileak motibatuta eta leial mantendu behar dira, beraiek baitira enpresaren irudia. Gaur egun lan-merkatuak eskaintza-krisia pairatzen du eta gero eta zailagoa da pertsona egokiak aurkitzea. Langileak aukeratu eta kontratatzeko zerbitzu eraginkorra izatea funtsezkoa da.

## **HELBIDE INTERESGARRIAK**

### **Federazioak/Elkarteak:**

***ADEL-Gipuzkoa. Gipuzkoako Garbiketa Enpresen Elkartea***

***ASCEL-Garbiketako Enpresaburuen Kataluniako Elkartea***

<http://www.ascel.net>

### **Azokak/Biltzarrak**

Pulire España. Feria española para la Limpieza Profesional e Higiene Ambiental — Garbiketa Profesional eta Giro Higienarako Espainiako Azoka

<http://www.pulire-es.com>

### **Besterik:**

***DBK ratio sektorial azterketak: garbiketa-enpresak***

<http://www.dbk.es>

***Anuario Español de Mantenimiento y Limpieza — Mantentze eta Garbiketako Espainiako Urtekaria***

<http://www.seguritecnia.com/anuario/limpiezas01.htm>

***Garbiketa Sektoreari buruzko albisteak eta informazioa***

<http://www.atl.gestion.com/home.htm>

***Garbiketa Profesionalaren Atari Ofiziala Espainian***

<http://www.1a3soluciones.com>